

Gomendatutako liburua:

-Ackermann, Ute. "Bauhaus". Könemann. Köln. 2000.

BAUHAUS

Bauhaus arkitektura-, diseinu- eta arte-eskola handia izan zen, Walter Gropiusek fundatua, Alemaniako Weimar hirian 1919.ean. Bauhaus Arte eta Lanbide Eskolaren eta Arte Plastikoen Eskolaren arteko bateratzeak sortu zen. Bauhaus-en helburu nagusienak hauek ziren: 1-ikasleei edo artistei lanbideetarako oinarrizko hezkuntza trinkoa ematea, material eta usaera desberdinak eta formaren mintzaira ezagutzuz; 2-arkitekturaren gorentasunaren menpean, joera artistikoak eta artisauak bat egitea; 3-ekoizpen artistikoak biztanleriaren beharretara moldatzea; 4-arte-eskoletan berriztapen pedagogikoa, Akademizismoa alde batera utziz.

Bauhaus hitzaren esanahia eraikuntzarako etxea da. Beste hitz batekin erlazionatzen da "Bauhütte" (Erdi Aroko katedralen eraikitzaileen logia zaharrak. Logia hauetan artistek eta artisauak elkarrekin lan egiten zuten, helburu eta sentimendu estetiko berdin baten menpean) zentzu horretan Bauhaus eraikitzaileen etxea izan daiteke.

Arte-eskola honetan (lehen aldiz) estetika industrialari buruzko lehendabiziko ikerketak egin ziren, diseinuaren mundua garatuz. Bauhaus-ek berezko metodo estetiko bat lortu zuen eta orokorrean sortutako estetika funtzionala izan zen. Ideia horiek 1919ko Manifestu Fundatzailean irakur daitezke: Lehen Mundu Gerraren erruinen gainean zerbait berri eta inportante eraikitzea, horrela artista gazteek haien idealak gauzatuko zituzten, utopia berri bat edo gizarte berri bat sortuz.

Aurrekin historiko-artistikoak:

Walter Gropiusek, Bauhausen fundatzaileak, Bauhaus imajinaezina litzatekeela zioen Ruskin Morris, Henry van de Velde, Peter Behrens eta Ingalaterrako mugimendua Arts and Crafts esistitu gabe. Esperientzia hauei esker, lehendabiziko bideak sortu ziren, oinarri modernoak onartuz, artistak sortze industrialetan lan egiteko asmoz.

Lehendabiziko urratsak XIX.mendean kokatzen ziren. Makina industrialak gizarterako objektu arruntak jarraian sortzen hasi ziren, artisauaren lana bazterrean utziz. Makinaren eta artisautzaren arteko eztabaida sortu zen. Ondorio gisa, adibidez, John Ruskin-ek (1819-1900), Britainia Handian idazkin aipagarriak egin zituenak, Erdi Aroko artisautzaren ekoizpena berreskuratzea eskatu zuen, makina onartu ezinik. Bere ustez, makinetan oinarritutako ekoizpenarekin kontsumitzailearen zentzu estetikoa galtzear zegoen eta, bide batez, artisauaren sortze pertsonala desagertuko zen. Industrializazioaren kontrako iritziak jaurtiki zituen.

William Morris-ek (1834-1896) arte guztien bateratzea bultzatu zuen, artisten eta artisauen arteko elkarlana indartuz. William Morris-ek Arte Nagusien (arte libreak) eta Arte Xeheen (arte aplikatuak) arteko desberdintasunak ezabatu nahi zituen, artista eta artisaua maila berberan egon zitezten. Hauxe izan zen Bauhaus-en helburua. Ruskin-ek bezala, materialen benetakotasuna eta imitazioen gutxiespena baloratu zituen. Objektu bakoitzak forma, materia eta usaerarekin harmonian egon behar zuen, horregatik zentzurik gabeko apaingarriak alde batera utzi zituen. Ruskin-ek ez bezala, Morris-ek makinaren erabilpena onartu zuen, beti gizakiaren kontrolpean. Teorigile honek aldi industrialaren berrikuntzak aprobeztatu behar zirela zioen. Bere teoriak ere gizakiaren

beharrak kontutan hartu zituzten: langileen poztasuna indartu behar zuten, gorengo kalitatezko ekoizpena lortzeko. Artista honen teoriak martxan jarri ziren Arts and Crafts (arteak eta lanbideak) mugimenduan.

Arts and Crafts mugimenduan langintzaren erabilera egokia eskatu eta objektuen estetika hobetzea lortu nahi zuten. Arts and Crafts kontinentera igaro zen, Belgikan gune indartsua izan zuen, Van de Velde eta "La libre esthétique" taldearen inguruan; Eskozian Glasgow-eko eskola izan zen jarraitzailea; Errusian, Abramtzevo-ren eskola; Vienan, Sezession taldea; Espainian, Bartzelonan Domenech, Gaudi eta Font i Gumá arkitektoak aurkitzen ditugu.

Van de Veldek (1863-1957), Ruskin eta Morris-ek ez bezala, teknikaren eraginkortasuna eta Ingalaterrako maisuen erromantizismoaren errefusatzea planteatu zituen. Honek artisautzatik artea berritu nahi zuen, artisautzan mekanizazioa sartuz. Van de Velde Werkbund (Obrarako Batzea) erakundearekin batera lan egin zuen. Mugimendu honetan artistak, arte industrialen arduradunak eta industria bera bat egiten zuten, bere helburua hurrengo izanik: guztien lan eta esfortzuari esker, industriatik sortzen ziren kalitatezko produktuak lantzea.

Werkbund-en buru aipagarriena Hermann Muthesius (1861-1927) izan zen. William Morris-en teoriak Alemanian zehar hedatu zituen eta haren ustez makinaren poterea oso inportantea zen, injineruak artistaren lekua ordezkatzuz. Hau gertatzekotan, sortutako formak funtzio garbira moldatuko zirela pentsatu zuen. Bestaldetik, beste izen bat aipatu behar da: Peter Behrens arkitektoa (1868-1940), Werkbund-en beste fundatzaile bat izan zena.

3-Bauhausen aldiak

Bauhausen sorrera eta amaiera Weimarko Errepublikarekin batera eman ziren. Weimarko Errepublika Lehen Mundu Gerraren ondoren Alemaniako erregimena izan zen.

1-Sortzearen aldia (1919-1923): Bauhausen lehendabiziko zuzendaria Walter Gropius izan zen. Honek Eskolako maisuak bilatu zituen: Johannes Itten eta Lyonel Feininger margolariak eta Gerhard Marcks eskultorea. Gero 1920.ean eta Itten-i esker, Bauhaus arte-eskolan Paul Klee eta Georg Muche sartu ziren. 1922.ean konstruktibismoarekin erlazionatu zen, Kandinsky-ren sarrerari esker. Theo van Doesburg-ek, neoplastizismoaren buru batek, gogor kritikatu zituen arte-eskola horren hurrengo planteamenduak: arrasto espresionistak, ekoizpen artistiko indibidualizatua eta artearen eta gizartearen arteko loturen ahazteak. Dena dela, aldi honetan maisuen ideologia artistiko desberdinen arteko lehendabiziko tirabirak sortu ziren. Adibidez, Gropius-en jarrera oso positibista eta funtzionala zen, baina Itten-en jarrera erromantikoa zen eta mundu errealetik urrundu nahi zuen. Itten eskolatik egotzi zuten eta beraren ordezkariak Moholy-Nagy sartu zen 1923.ean. Horrela bigarren aldia hasi zen.

2-Sendotzearen aldia (1923-1928): aurreko arazoak desagertu ziren Moholy-Nagyren sarrerarekin. Aldi honetan ideia batzuk indartzen dira berriro ere: makinan eta teknikan fedea; artearen eta industriaren arteko bateratzea. Konstruktibismoaren ideiek espresionismoaren alde batera utzi zituzten. Lehendabiziko erakusketan, 1923.ean, lan aipagarrienak hauek izan ziren: Georg Muche eta Aldof Meyer-ren Etxe esperimentalak; Joost Schmidt, Herbert Bayer eta Oskar Schlemmer-ren horma-sortzeak. Aldi honetan Bauhausen kokapena Dessau hirira aldatu zen. Hezkuntzaren ikasgaiak gehitu ziren eta denetatik aurkitu zen: Altzarien, Metalaren, Horma-Pinturaren Tailerra

eta abar. Gero 1927.ean Arkitekturaren sail bat sortu zuten, Hannes Meyerren zuzendaritzapean. Aldi horretan eskolaren aldizkaria (1926-1931) eta Bauhausen liburuak (1925-1931) agertu ziren.

3- Beherakadaren aldia (1928-1933): Walter Gropius-ek bere lanpostua utzi zuen eta haren ordean Hannes Meyer (Suitzako arkitektoa) eskolaren zuzendari izendatu zuten. Honek hauxe zioen: “Nuestro objetivo es servir al pueblo, no buscamos ni un estilo Bauhaus ni una moda Bauhaus... El objetivo final debe ser la aglutinación de todas las fuerzas creadoras de vida orientada a la configuración armónica de nuestra sociedad.” Epe horretan zuzendari berriarekin gizartearen beharrak aztertu zituzten. Une horretan ere beste artista batzuek eskola utzi zuten, adibidez, Moholy-Nagy, Breuer eta Bayer. Garrantzitsuak izan ziren diseinuaren munduan garatutako proiektuak. Meyer-ek Bauhaus lau sailetan zatitu zituen: Arkitektura, Publizitatea, Ehungintza eta Akabera Saila, Arkitektura Departamentua eskolaren puntu inportanteena izanik. Geroago 1930ean Meyerren lanpostua Ludwig Mies van der Rohe-k hartu zuen. Arkitekto horren norabide pedagogikoa Meyerren egitarauetan oinarritu zen. Naziak hauteskundeak irabazi zituztenean eskola itxi eta Berlinera eraman behar izan zuten, instituto pribatua bihurtuz, eta gerora nazien presioa zela eta, azkenean betirako itxi behar izan zuten. Bauhauseko maisuak beste herrialde batzuetara abiatu ziren. Aipatzearen, Feininger, Gropius eta Mies van der Rohe Estatu Batuetara, Kandinsky Frantziara eta Paul Klee Suitzara.

4-Arte plastikoak

Bauhausen artista ugari elkartu ziren eta haien artean pintoreen kopurua oso altua izan zen. Izen guztien artean hurrengoak aipatu behar ditugu: Johannes Itten, Lyonel Feininger (1919.ean eskolan sartu ziren); Georg Muche (1920.ean); Paul Klee eta Oskar Schlemmer (1921.ean); Wassily Kandinsky (1922.an); Moholy-Nagy (1923.ean).

Artista hauek joera piktoriko desberdinak islatu zituzten, handik sortu zen Bauhausen izpiritua. Haien joerari dagokionez, taldetan elkar daitezke: 1-izpiritualitatea eta geometriaren poesia bultzatzen zituztenak (Itten, Muche, Klee eta Kandinsky); 2-teknika eta printzipio razionalak bultzatzen zituztenak (Feininger eta Schlemmer).

GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

- “Faroltxoen jaiarako postala” (1922): Oskar Schlemmer
- “Tapiza” (1920-22): Gunta Stölz
- “Diseinu publizitarioa” (1924): Herbert Bayer
- “Pitxarra tapa altuarekin” (1922): Otto Linding
- “Mahai tolesgarria (plegable) hiru posiziotan” (1928): Gustav Hassenpflug
- “Ariketa eskultorikoa” (1928): Joost Schmidt
- “Burdinsare dekoratzailea” (1922): Josef Albers
- “Panpina artikulatua” (1923): Oskar Schlemmer
- “Enkuadernazioa” (1923): Anny Wottiz
- “Dessau hirirako diseinu” (1931): Joost Schmidt
- “Argazki-muntaketak” (1930): Joost Schmidt
- “Bauhaus-i kolpea” (1932): Bauhauseko ikasle batek
- “Forma orlegi librea eta triangulu horia” (1926-1927): Lothar Lang
- “Koloreen eskala” (1926-1927): Lothar Lang
- “Ballet Triadiko-tarako jantziak” (1926): Oscar Schlemmer

- “Dantzaren eszena” (1927): Oskar Schlemmer
- “Sommerfeld Etxea” (1920-1921): Walter Gropius eta Adolf Meyer